Bestelako Xedapenak

JAURLARITZAREN LEHENDAKARITZA

6188

20/2009 EBAZPENA, azaroaren 9koa, Jaurlaritzaren Idazkaritzako eta Legebiltzarrarekiko Harremanetarako zuzendariarena, «Irekia - Gobierno Abierto» nortasun-ikur berezia onartzeaz Jaurlaritzaren Kontseiluak hartutako erabakia argitara dadila xedatzen duena.

Jaurlaritzaren Kontseiluak, 2009ko urriaren 27an egindako bilkuran, «Irekia - Gobierno Abierto» nortasun-ikur berezia aldatzeko erabakia hartu du; beraz, beharrezko zabalkundea emateko xedez, honakoa

EBATZI DUT:

Artikulu bakarra.– Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratzea Jaurlaritzaren Kontseiluak 2009ko irailaren 29an egindako bilkuran hartutako Erabakia, zeinaren bidez «Irekia - Gobierno Abierto» nortasun-ikur berezia onartu baitzen. Ebazpen honen eranskinean dator erabakia.

Vitoria-Gasteiz, 2009ko azaroaren 9a.

Jaurlaritzaren Idazkaritzako eta Legebiltzarrarekiko Harremanetarako zuzendaria,
JOSÉ LUIS ERREKATXO LABANDIBAR.

ERANSKINA, JAURLARITZAREN IDAZKARITZAKO ETA LEGEBILTZARRAREKIKO HARREMANETARAKO ZUZENDARIAK AZAROAREN 9AN EMANDAKO 20/2009 EBAZPENARENA.

«Irekia - Gobierno Abierto» nortasun-ikur berezia onartzeari buruzko Erabakia.

IX. Legegintzalditik ateratako Jaurlaritza berriak Open Government edo Jaurlaritza Irekiaren kontzeptua garatu eta sustatu gura du. Helburu horri begira Jaurlaritza honek «Irekia - Gobierno Abierto» izeneko on-line zerbitzu bat sortu du, zeinaren bidez lortu gura baita Jaurlaritzaren eta bere menpeko erakundeen gardentasuna, zertarako eta aurrerantzean garatuko diren lan-ekintza, -egitasmo eta –lerroen berri emateko; izan ere, nahi dena dea herritarrek parte hartzea Jaurlaritzaren egintzen gaineko iritziak kritikatu, baloratu eta ekartzeko orduan.

Otras Disposiciones

PRESIDENCIA DEL GOBIERNO

6188

RESOLUCIÓN 20/2009, de 9 de noviembre, del Director de la Secretaría del Gobierno y de Relaciones con el Parlamento, por la que se dispone la publicación del Acuerdo adoptado por el Consejo de Gobierno por el que se aprueba el signo de identidad específico para «Irekia - Gobierno Abierto».

Habiéndose aprobado por el Consejo de Gobierno, en su sesión celebrada el día 27 de octubre de 2009, el Acuerdo por el que se aprueba el signo de identidad específico para «Irekia - Gobierno Abierto», y a los efectos de darle la publicidad debida,

RESUELVO:

Artículo único.– Publicar en el Boletín Oficial del País Vasco el texto del Acuerdo adoptado por el Consejo de Gobierno en la sesión celebrada el día 27 de octubre de 2009 por el que se aprueba el signo de identidad específico para «Irekia - Gobierno Abierto», que figura como anexo a la presente.

En Vitoria-Gasteiz, a 9 de noviembre de 2009.

El Director de la Secretaría del Gobierno
y de Relaciones con el Parlamento,
JOSÉ LUIS ERREKATXO LABANDIBAR.

ANEXO A LA RESOLUCIÓN 20/2009, DE 9 DE NOVIEMBRE, DEL DIRECTOR DE LA SECRETARÍA DEL GOBIERNO Y DE RELACIONES CON EL PARLAMENTO.

Acuerdo por el que se aprueba el signo de identidad específico para «Irekia - Gobierno Abierto».

El nuevo Gobierno surgido en la IX Legislatura quiere desarrollar e impulsar el concepto de Open Government o Gobierno Abierto. Para este cometido ha creado un servicio on-line, denominado «Irekia - Gobierno Abierto», que busca la transparencia del Gobierno Vasco y de todas sus entidades gubernamentales para comunicar las acciones, planes y líneas de trabajo durante sus distintas fases y que pretende propiciar la participación ciudadana a la hora de criticar, valorar y aportar opiniones sobre las acciones del Gobierno.

Komunikaziorako eta parte hartzeko on-line zerbitzua da «Irekia - Gobierno Abierto». Garrantzi berebizikoa ematen die, alde batetik, gizarte sareei eta esparru publikoetan parte hartzeari, eta bestetik, osagai audiobisual diferitu zein zuzenekoei ere.

Beharrezkotzat jotzen da, ondorioz, irudi grafiko bateratua sortzea, zeinak balioko baitu administrazio autonomikoaren eta herritarren arteko elkarrizketa irekia –modu naturalean garatzen dena- aditzera eman eta ordezkatzeko.

Eusko Jaurlaritzaren erakunde-nortasunaren eskuliburua arautzen duen abuztuaren 31ko 318/1999 Dekretuak, 3.1 artikuluan, honako hau ezartzen du: «Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorreko sailek eta beren administrazio-unitateek, zein diren ezagutarazteko, erakunde-nortasunaren eskuliburuan bildutako elementuak, eta ez besterik, erabiliko dituzte jendaurreko komunikazio-agerraldi guztietan; beti ere, bat eginda eskuliburuan jasotako berezitasun teknikoekin eta erabilera-irizpideekin».

Artikulu horretako bigarren paragrafoak, bestalde, ezartzen du ezen, bestelako nortasun-ikur bereziak ere erabili ahal izango direla zenbait zerbitzu edo jendaurreko jardueretan, baina, horretarako, ezinbestekoa izango dela Jaurlaritzaren Kontseiluaren akordioa, beti ere Lehendakaritzako idazkariak, aurretiaz, aldeko txostena emanda, eta ezartzen du, baita ere, hartutako akordioa Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratuko dela.

Lehendakaritzako Idazkaritza Orokorrak aldeko txostena eman du,eta hor justifikatzen da beste nortasun-ikur berezi batzuk erabiltzeko exigitutako inguruabarren konkurrentzia zenbait zerbitzu edo jarduera publikotan.

Horren indarrez, dagokion eztabaida egin ondoren eta lehendakariak proposatuta, Jaurlaritzaren Kontseiluak honako erabaki hau hartu du

ERABAKIA

«***Lehenengoa***.– Erabaki honen eranskin modura doan "Irekia - Gobierno Abierto" nortasun-ikur berezia onartzea.

Bigarrena.– Jaurlaritzaren Idazkaritzak erabaki hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratzeko agindua emango du».

«Irekia - Gobierno Abierto» es un servicio de comunicación y participación on-line que otorga una alta importancia a las redes sociales y la participación en la vida pública, así como a la componente audiovisual, tanto en diferido como en directo.

Por ello, se considera necesaria la creación de una imagen gráfica unificada que simbolice y represente una conversación en abierto que va creciendo de forma natural entre la Administración Autonómica y la ciudadanía.

El Decreto 318/1999, de 31 de agosto, por el que se regula el Manual de Identidad Corporativa del Gobierno Vasco establece, en su artículo 3.1, que los Departamentos de la Administración General de la Comunidad Autónoma del País Vasco y sus unidades administrativas utilizarán para su identificación, en todas las manifestaciones de comunicación pública, única y exclusivamente los elementos recogidos en el Manual de Identidad Corporativa, según las especificaciones técnicas y los criterios de utilización contenidos en el mismo.

Por otro lado, el párrafo segundo del mismo artículo establece que, por Acuerdo de Consejo de Gobierno, que será publicado en el Boletín Oficial del País Vasco, y previo informe favorable del Secretario de la Presidencia, podrá disponerse la utilización de otras marcas o signos de identidad específicos para determinados servicios o actividades públicas.

Habiéndose emitido el informe favorable por el Secretario General del Presidencia en el que se justifican la concurrencia de las circunstancias exigidas para la utilización de otros signos de identidad específicos para determinados servicios o actividades públicas.

En su virtud, a propuesta del Lehendakari, previa la correspondiente deliberación, el Consejo de Gobierno adopta el siguiente

ACUERDO

«***Primero***.– Aprobar la marca de identidad específica para "Irekia - Gobierno Abierto", que se adjunta como anexo al presente Acuerdo.

Segundo.– Por la Secretaría del Gobierno se ordenará la publicación del presente Acuerdo en el Boletín Oficial del País Vasco».

ERABAKIAREN ERANSKINA Irekia - Gobierno Abierto» nortasun-ikur berezia

ANEXO AL ACUERDO: Marca de identidad específica para «Irekia - Gobierno Abierto»





